



MEMORIA 2021-2022 IKASTURTEA







Aurkibidea

URTEKO TXOSTENA.....	4
KUDEAKETARAKO TALENTUA	10
Aditu ikastaroak eta programa irekiak	13
EKINTZAILETZA - MONDRAGON TEAM ACADEMY	14
IKERKETA ETA EZAGUERAREN TRANSFERENTZIA.....	16
I+B proiektuak eta jarduerak	18
Proiektuak.....	18
Zabalkundea. Argitalpenak eta ponentziak	21
Kapituluak.....	21
Artikuluak.....	22
Kongresuak eta hitzaldiak.....	23
Jardunaldien/Kongresuen antolaketa.....	23
Hirugarren zikloa	24
EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.....	25
PERTSONEN GARAPENA ETA KUDEAKETA EREDUA.....	26

URTEKO TXOSTENA





2021-22 ikasturtean, testuinguru konplexua izan dugu. Aurreko ikasturteko COVID-19ak eragindako pandemiak ondorio larriak izan ditu osasunean eta arlo sozioekonomikoan. Gure unibertsitate jarduera egokitzen jarraitu behar izan dugu, edukierari, distantzia sozialari eta kutsatutako pertsonen bakartzeari begira ezarritako murrizketak betetzen zirela bermatzeko. Eta hala egin dugu, gure prestakuntza jarduera une oro aurrez aurre eskainiz, gure ikerketa jarduera enprekin eta erakundeekin garatuz eta programetan aurreikusitako ikaskuntza bidaiak eginez. Ikasturteko bigarren seihilekoan, neurri batzuk arindu ahal izan ditugu, osasun egoeraren hobekuntzagatik. Denbora korapilatsu honetan zehar, Fakultatea osatzen dugun langileok gisa horretako erronkari emandako erantzuna eredugarria izan da. Egokitzeko gaitasun horrek erakutsi du, berriro ere, zer-nolako konpromisoa duen eta zeinen lan ona egiten duen Fakultateko kolektibo osoak.

Gainera, 2022ko otsailean Errusiak Ukraina inbaditu izanak ere egoera dramatikoak sortu du, eta horrek ere ondorio ekonomiko garrantzitsuak ekarri ditu. Energiaren garestitzea merkatu guztietara iritsi da, eta horrek prezioen igoera eragin du; era horretan, enpresen kostuen egitura aldatu egin da, eta horrenbestez, interes tasak igo egin dira, eta, azken batean, herrialde askoren egungo zein etorkizuneko aurreikuspen ekonomikoak okertu egin dira. Horren ondorioz, ezegonkortasun eta ziurgabetasun handiko nazioarteko testuinguru geopolitikoan amaitu da pandemia.

Kontrako testuingurua izanagatik, aurrerapen handiak eta garrantzitsuak egin ditugu Fakultatearen proiektuan. Gora egin du beren prestakuntza gurekin egitea erabakitzen duten ikasleen eta profesionalen kopuruak. Prestakuntza programa gehiago eskaintzen ditugu orain. Martxan dauden berrikuntza eta ekintzailtza laborategien kopurua handitu egin da. Handitu egin da gure inguruko enprekin eta erakundeekin egiten ditugun ikerketa eta transferentzia lanen kopurua ere. Eta gazte ekintzaileek enpresa berriak sortzea sustatu dugu.

Enpresen kudeaketa eta ekintzailtza arloaren barruan, zeina Fakultatearen ardatza baita, gai berriei buruzko ezagutza garatzen jarraitzen dugu, bai eta berrikuntza maila handiko ikuspegi metodologikoak txertatzen ere. 2021-2024ko Plan Estrategikoan jasotako estrategien bideari jarraituz, konbentzimendu osoarekin egiten ditugu gure prestakuntza, ikerketa eta transferentzia ekintzak, argi izanda funtsezko eragilea garela kudeaketarako eta ekintzailtzarako talentua sortzen, bai eta gure lankide diren enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta gizartearen arlo sozioekonomikoa bultzatzeko ezagutza garatzen ere.

Hona hemen gertaera orokor azpimarragarriak.

Kudeaketarako Talentuaren koordinazioan:

- MyGADEko (Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza) promozio berri bat hasi da Fakultatean, lehen urtetik unibertsitatea/enpresa ibilbide duala duen gradu batean. Gradu hori Oñatiko, Bidasoko eta Bilbao-ASFabrik campusetan eskaintzen da. Horrela, 200 "Learning companies"-ek graduako ikasle bana hartu dute, graduako ikasketen lau urteak iraungo duen esperientzia akademiko eta profesional bat hasteko.

- Ikasturte honetan, halaber, Business Data Analytics (BDatA) graduaren hirugarren promozioa jarri da martxan, Bilbao-ASFabrik campusean. Enpresek planteatutako erronketan oinarritutako metodologia da gradu honen ikaskuntzarako erreferentzia.
- Goi Mailako Heziketa Zikloen eskaintzan, azpimarratzekoa da, era berean, enpresek profil batez ere praktikoak eskatzen dituztela administrazio eta finantza zein salmenta eta merkataritza arloetan, eta eskaera horiei erantzunak ematen jarraitzen dugula.
- Graduondoko prestakuntzari dagokionez, graduatu berri direnentzako espezializatorako Unibertsitate Masterren atalean, programa hauek eman dira:
 - Kontabilitate eta Finantza Zuzendaritza Unibertsitate Masterra
 - Marketin Digitala Unibertsitate Masterra
 - Erakundeen Nazioartekotzea Unibertsitate Masterra
 - Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoa Unibertsitate Masterra
- Profesionalentzako Masterren atalean, programa hauek eskaini dira:
 - MBA-Executive, Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin lankidetzan
 - Coaching Masterra
 - Espezializazio diploma lidergoan
 - Lidergoan eta Talde Lanean Aditu Ikastaroa
 - Nazioartekotzean Aditu Ikastaroa
 - Lanaren etorkizunerako Pertsona, Kultura eta Talentuan Aditu Ikastaroa
 - Enpresa Kooperatiboen Kudeaketako Espezializazio Ikastaroa

Ekintzailtza – Mondragon Team Academyren koordinazioan:

- Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduan (LEINN), azpimarratzekoa da 324 ikasle berrik hasi dutela gradua MTako 10 laborategi hauetan: Oñati, Irun, Bilbo, Madril, Bartzelona, Valentzia, Malaga, Puebla-Mexiko, Shanghai-Txina (LEINN International) eta Seul-Korea.
- 21-22 ikasturtean, Falkon Model izeneko LEINN Graduaren esparru pedagogiko berria ezartzen jarraitu dugu Mondragon Team Academy sareko laborategi guztietan.
- LEINNen Learning Journeys jardunaldiak pandemiaren baldintzapean egin ditugu. Hala ere, dezente burutu ahal izan ditugu.

MTA Ekintzailtzako Etengabeko Prestakuntzaren eta Graduondoaren arloan, honako programa hauek gauzatu dira:

- **TEAMINN TEAM Mastery**
- **PLATFORM COOPS Now** ikastaroaren hirugarren eta laugarren edizioak, NEWSCHOOL Universityrekin (New York) lankidetzan.



- **Barne ekintzailtza eta berrikuntza programa (T-Program)**, ITA Aragoiko Institutu Teknologikoarekin lankidetzan.
- **Fintech Berrikuntza Irekiko Programa** Laboral Kutxarekin eta Kutxabankekin.

Mondragon Team Academy – MTA nazioarteko sareari dagokionez:

- **Malagako Udala**rekin hitzarmena sinatu dugu, Berrikuntza eta Ekintzailtza Laborategi berri bat abian jartzeko, 2022-23 ikasturtean LEINN Gradua eman ahal izateko.
- Ekonomia zirkularreko gaietan, **Bartzelonako Udalarekin** batera, ekosistema ekintzaileko proiektu bat garatzeko aukera aztertzen ari gara.

Ekintzailtza eta berrikuntzako inkubazio eta ekosistemei dagokienez:

- **Lankidetzaren hitzarmen** batzuk sinatu dira MTArekin eta ekintzailtza ekosistemako eragileen artean, MTAr eta LEINNi lotutako inkubazio jarduerak garatzeko.
- **BBFn eta BBF Fintech-en inkubazio** jarduerak bultzatzen jarraitzen dugu, coworking espazioak eta sortutako *start-up*etarako guneak dinamizatuz.

Ikerketa eta Ezagutzaren Transferentziaren Koordinazioa - MIKek kudeaketako ezagutzaren ikerketa eta transferentzia lana sustatzen jarraitu du, eta emaitza aipagarriak lortu ditu.

- Pandemiaren eraginagatik eta horrek gure inguruko enpresa edo bezeroengan izan dituen ondorioengatik egoera oso txarra izan arren, bete egin ditugu Ikerketako zein Transferentziako kudeaketa planean ekitaldirako jasotako helburuak. Ezinbestekoa da Transferentziako sarreretan izandako gehikuntza azpimarratzea. Inguruko enpresek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote enpresen kudeaketaren berrikuntzari. Azken urteetan egindako lana emaitza onak ematen ari da. Bestalde, ikerketa proiektuen erakarpen zifrak behera egin du, Europako deialdi berrien arrakasta ratio orokor txikiak direla eta; izan ere, zenbait proiektuk, onartuta egon arren, azkenean ez dute finantzaketarik jaso.
- Gure erakundeari dagozkion gaiak finkatu ditugu, eta, gainera, horien aplikazio eremuak bultzatu ditugu, gure inguruko enpresei eragiten dieten bi trantsizio nagusietan zentratuta: trantsizio digitala eta trantsizio berdea.
- Datozen urteetan, bikaintasun zientifikoaren garapenarekin lotutako erronkei eta I+T prozesu operatiboaren kudeaketa eraginkorragoari ere aurre egin beharko die unitateak. Horretarako, aurreko ikasturtean onartutako urte anitzeko Garapen Zientifikoko Plana eta UNE 166.002 Prozesuak Garatzeko Plana lantzen jarraitu dugu 2021/2022 ikasturtean, inplementazio operatiboarekin.

Pertsonen Garapenaren eta Kudeaketa Ereduaren Koordinazioa, Fakultatean profesional berriak sartzeko jarraitu dugu, eta, horrela, gure jarduera garatzeko talentua lortu dugu. Lan horrekin batera, aipagarria da Fakultatean lan egiten duten pertsonen garapena bultzatzen aritu garela.

- 21-22 ikasturte amaieran, 167 bazkide eta lan kontratadun genituen, bai eta kolaboratzaile kopuru handi bat ere; aurreko ikasturtearekin alderatuta, 15 pertsona gehiago. Gaur egun, Fakultatean lan egiten duten pertsonen %50 duela 5 urte edo gutxiago sartutakoak dira. Eta hazkunde horrek pertsonak erakartzeko, kaptatzeko eta hautatzeko egin beharreko ahalegina areagotzea eskatu digu.
- Pertsonen garapen prozesuei bultzada garrantzitsua eman diegu. Aipagarriena da trebakuntza zientifikoko plana jarri dugula abian, eta horrek banakako lan helburuak dituzten irakasle eta iker-tzaile askoren inplikazioa ekarri du.
- Fakultateko balioen definizioan aurrerapausoak eman ditugu, horien edukia zehaztuz eta ekintza planean definituz, kolektibo osoaren partaidetzarekin, horiek sustatzeko asmoz.

AGENDA 2030

Enpresagintza Fakultateak bere jardueraren azken xede du eraldaketa soziala. Horrela, bere esparruan burutzen dituen jardueren zentzua gizarte iraunkorrago bultzatzeko asmoan oinarritzen dira.

Enpresagintza kooperatiba elkartea izanik bere izaeraren muinan dago eraldaketa sozialaren xedea, helburu horrekin sortu baitziren Mondragoneko kooperatibak. Era berean, hezkuntza dago printzipio kooperatiboen erdigunean, mugimenduaren sorburu eta arazo sozialen konponbide bihurtuz. Hori guztiagatik, pertsona, enpresa eta gizartearen eraldaketa gure fakultatearen bisioan jasotzen da.

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH-ODS) tresna oso aproposa dira eraldaketa sozialaren ibilbidean ematen diren urratsak antolatzeko eta hura neurtzeko.

Gure jarduerari neurria hartzen joateko, Garapen Jasangarrirako Helburuei lotutako agente panela osatu da. Hona hemen 2021-22 ikasturtearen argazkia ematen diguten adierazle sorta:



EKINTZA




- Prestakuntza dualeko ikasleak: **324 (+%17)**
- Doktoretzako ikasleak: **32 (+%3)**
- Barneko doktoregaiak: **23 (+%43)**
- Defendatutako tesiak: **4 (=)**
- Gradu eta Master Amaierako lanak:
 - GBL myGADE: **110 (+%25)**
 - GBL LEINN: **123 (+%167)**
 - MBL: **99 (+22%)**
- ODS eta garapen jasangarriaren inguruko berriak prestakuntza myGADE eta LEINNen.
- DOCENTIA akreditazioa duten irakasleak: **49 (+%9)**
- UNIBASQ akreditazioa duten doktoreak: **17 (-%6)**
- Langile elebidunak: **%91 (+%4)**



- Bere esparruan lan egiten duen enpleguaren tasa: **%92 (-%4)**
- Urtebetetera lanean dauden graduiko ikasleak: **%83 (=)**
- Urtebetetera lanean dauden masterreko ikasleak: **%88,5 (-%5)**
- Sortutako start up kopurua: **25 (+%92)**
- Start up berrietan sortutako lanpostu kopurua: **69 (+%68)**
- Langile kopuruaren hazkundera: **167 lankide (+%11)**
- Enplegu kooperatiboaren sorrera: **8 bazkide berri**
- Hurrengo urtean lanean jarraitzen duten kontratadun berriak: **%77 (-%10)**
- Langileek asebetetzea (ECO inkesta): **4,8 (=)**
- Lan ingurune segurua, Lan Arrikuskuen Prebentziorako Planaren bitartez



- Ikerketa eta transferentziako jardueraren hazkuntza: **65 proiektu (+%18,18)**
 - Europako proiektuak: **2 (-%33)**
 - Eusko Jaurlaritza: **2 (=)**
 - Foru Aldundiak: **16 (+%33)**
 - Enpresekin proiektuak eta ezagutzaren transferentzia: **105 (+%118)**
- Era berean proiektu hauek hainbat GJHetan eragin zuzena izan dute, bere aztergaia dela eta: 
- Ikerketaren difusioa: **9 (-%56,25)**
 - Monografiak: **1 (-%66,6)**
 - Kapituluak: **3 (-%25)**
 - Artikuluak: **2 (=)**
 - Kongresu eta hitzaldiak: **3 (-%57,14)**
- Langileen prestakuntzarako gastua: pertsonal kostuaren **%3,7 (-%3)**
- Garapen Zientifikoa bultzatzeko planaren diseinua eta inplantazioa

IZAERA KOOPERATIBOA



- IV. Berdintasun Diagnostikoa eta Planaren azken urtea
- Berdintasunerako Erakunde laguntzailea Emakunden, 2010etik.
- M8 eta A25 egunetako sentsibilizazio kanpainak
- Langile talde parekidea: **60% emakumeak**
- Kontseilu Errektorea eta Kontseilu Soziala organo parekideak
- Ikertzaile emakumeak: **%60**
- Soldata arrakala: **%10 (-%10 2014tik)**
- Graduiko ikasle taldeak parekideak
- Hizkuntza inklusiboaren erabilera
- Sexu jazarpenaren aurkako protokoloa



- Bekabide programan parte hartzen duten ikasleak: **67 (+%1,5)**
- ESKUZABAL proiektuan parte hartzea
- PAUSO BERRIAK programan parte hartzea
- Oñati, Bidasoako eta BBF erakinek irisgarritasun ziurtagiria dute
- Fotokopia kopurua murriztea: **564.455 fotokopia (-%32)**
- Inpresoretako toner kopurua murriztea: **18 unitate (-%25)**
- Lankide berri guztiei kristalezko botila oparitzen zaie, plastikoa- ren erabilera murrizteko.
- Kafe makineta norberak eramandako edalontzia jarri daiteke, plastikoa- ren erabilera murrizteko.
- Komuneko paperaren gastua mantendu da, nahiz eta langile eta ikasle kopurua igo.

KUDEAKETARAKO TALENTUA





XXI. mendeko erakundeak gidatzeko beharrezkoak diren balioak, gaitasunak eta trebetasunak dituzten pertsonen hezkuntza eta prestakuntza dira gure erronka. Horretarako, prestakuntza programa ugari eskaintzen ditugu, zati praktiko handiarekin, nazioarteko ikuspegiarekin eta ikaslea ardatz hartuta, ikaskuntza prozesuaren protagonista den aldetik.

Enpresagintzaren eredu pedagogikoa bere osagai praktikoagatik nabarmentzen da, lan merkatura argi bideratuta baitago, Enpresagintzak inguruko enpresa sarearekin duen lotura estuaren ondorioz. Horrela, ikaslea bere ikaskuntzaren protagonista da, ikaskuntza prozesu horretan gaitasun profesionalak eta pertsonalak eskuratzeari ezagutzak barneratze hutsari baino lehentasun handiagoa emanda eta enpresa errealitateari berez dagokion diziplinarteko ikuspegia sustatuta. Eredu horren helburua da ekonomia globalaren eta digitalaren errealitate berrietara egokitutako profesionalak prestatzea, talde lana eta ikaskuntza metodologia aktiboak ardatz hartuta.

Prestakuntza programen ezaugarri horiek guztiak probatu dira hain berezi izan den urte honetan. Pandemiak bereziki eragin die atzerriko egonaldiei, prestakuntza dualari eta talde lanari.

Prestakuntza prozesuan, funtsezko elementuak dira enpresaren presentzia etengabea eta enpresarekiko lotura. Praktiken eta proiektuen bitartez, 604 ikasle harreman estuan egon dira mota guztietako erakundeekin. Enpresen gogobetetasuna oso handia izan da, eta ikasleengan zenbait alderdi baloratu dira, hala nola talde lana, lankidetzaren espiritua, autonomia edo agindutako zereginak betetzean erakutsitako erabakitasuna.

Era berean, eta inguruko erakundeen erronkekin bat etorritik, nazioartekotzea ere funtsezko elementua da. Azken urteotan, Enpresagintzak zeharkako zutabe gisa ulertzen du nazioartekotzea bere prestakuntza eskaintzan, eta programa bakoitzerako ikaslearen profilerak egokitutako ibilbide eta esperientzia bereziak diseinatu ditu. Horren ondorioz, mugikortasunak izugarri hazi dira, era askotako ekimenak abiarazi dira (online, intensive, multipartner, blended, etab.), eta nazioartekotzearen aldeko apustu horri eusten dion kolaboratzaile estrategikoen sare bat sortu da. Adibide moduan, aurrean, Enpresagintzako programa guztiak kontuan hartuta, 1.284 ikasle baino gehiago izan dira nazioartean, dela gradu amaierako proiektuak atzerrian garatzen, dela ikasketa bidaiak beste herrialde batzuetako errealitate ekonomiko, enpresarial eta sozialak in situ ezagutzen, dela atzerriko unibertsitateetan ikasketako egonaldia egiten. Era berean, sare horretako kide izateak Europako nahiz Europatik kanpoko herrialdeetako ikasle eta irakasle ikertzaileei harrera egiteko aukera ematen dio Enpresagintzari.

Enpresagintzak 2021-2022 ikasturtean eskaintutako titulazioetan aukera asko daude; prestakuntza zikloak izan daitezke, baita doktoretza tituluak ere.

Enpresen **Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak dagokionez (myGADE)**, hau nabarmendu daiteke:

- 2021-2022 ikasturtean, myGADEko ikasleen zortzigarren promozioa hasi da ikasten Fakultatean, eta graduak ikasketak horien ezaugarri nagusia da lehen mailatik eredu dualean arituko direla, ikasketak eta lana uztartuz. Horrela, gaur egun 200 "Learning companies"-ek graduak ikasle bat hartu dute, graduak ikasketen lau urteak iraungo duen esperientzia akademiko eta profesional bati hasiera emanez.

604

IKASLE
ENPRESETAN

- MyGADEko ikasleen bosgarren promozioak 21-22 ikasturtean amaitu zituen ikasketak, pandemiaren ostean normaltasunera itzultzea ezaugarri nagusi izan duen ikasturtean.
- Era berean, ikasturtean zehar nazioarteko norakoak aktibatu dira, hirugarren mailako ibilbideetarako. myGADEko ikasleek egonaldiak egin dituzte Indian (Nazioarteko ibilbidea), New Yorken (Finantzen ibilbidea), Dublinen (Datuen ibilbidea), Mexikon (Talentuaren ibilbidea) eta Costa Rican (Marketin Digitalaren ibilbidea).

2021-2021 ikasturtean, halaber, Business Data Analytics graduaren hirugarren promozioa jarri da martxan. Gradu horrek "erronketan oinarritutako metodologia" du ardatz, eta honako enpresa hauen erronka errealak landu ditu:

- Bizkaiko Foru Aldundia
- Basque Trade & Investment - SPRI
- BBVA
- Eroski
- IKEA
- Sidenor
- Bilbo Basket
- Bilboko Portu Agintaritza

Nazioartekotze ikuspegitik, hirugarren mailako ikasleek egonaldia egin dute Essexeko unibertsitatean (Erresuma Batua).

Unibertsitateko Masterren esparruan, 2021-2022 ikasturtean, honako titulazio hauek garatu dira:

- **Finantza eta Kontabilitate Zuzendaritzako Unibertsitate Masterra** (zortzigarren edizioa).
- **Marketin Digitala Unibertsitate Masterra** (zortzigarren edizioa).
- **Erakundeen Nazioartekotzea Unibertsitate Masterra** (seigarren promozioa).
- **Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoa Unibertsitate Masterra** (laugarren edizioa).

Titulazio horiez guztiez gain, 22-23 ikasturtean emango den **Business Analytics/Negoio Adimenerako Datuen Analisisarako Unibertsitate Masterra** onartzea lortu da.

Lanbide Heziketaren arloan:

- Guztira 63 ikaslek egin dute ikasturte honetan Oñati Gestio Heziketak eskainitako goi mailako prestakuntza zikloren bat: **Administrazio eta Finantzak zein Salmenta eta Merkataritza Guneen Kudeaketa**.
- Guztira, 9 ikaslek parte hartu dute programa dualean, enpresan egonaldiak eginda.





ADITU IKASTAROAK ETA PROGRAMA IREKIAK

2021-22 ikasturtean, Fakultateak jarduera garrantzitsua garatu du graduondoko prestakuntzaren arloan, bai master eran, bai espezializazio diplomen eta aditu ikastaroen formatuan.

Guztira, 210 parte hartzaile berri sartu dira prestakuntza programetan.


Kudeaketarako Talentuko graduondoko eskaintza bat dator Fakultatearen lehentasunezko espezializazio ildoekin, hau da, espezializazio ildo hauekin: Enpresa Kudeaketa Aurreratua, Kooperatibismoa eta Pertsonen Kudeaketa eta Lidergoa.

Jarraian, profesionaleri zuzendutako eta 2021-22 ikasturtean emandako graduondoko beste programa batzuk nabarmenduko ditugu:

- **MBA Executive:** Programa hau kudeaketa esparruetan esperientzia handia duten profesional seniorrentzat da, eta Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan garatu da. XIII. edizioa izan da.
- **Coaching Masterra:** Banakako zein taldeko transformazio prozesuetan besteei laguntzeko gai diren pertsonak prestatzea helburu duen prestakuntza programa.
- **Espezializazio diploma lidergoan:** Programa hau taldeak eta proiektuak gidatzen dituzten eta lidergo kolaboratibo eta eraldatzailearen gakoetan sakondu nahi duten profesionaleri zuzenduta dago, lidergo hori lehen pertsonan bizi eta ezagutu dezaten. Programa honen fokua pertsonarengan eta taldearengan jartzen da.
- **Lidergoan eta Talde Lanean Aditu Ikastaroa:** Programa honen helburua da, formazio prozesu berritzaile baten bidez, partaideek lidergo kolaboratiboaren esparruan lider gisa hazteko eta hobetzeko aukerak esploratzea eta aurkitzea, gure erakundeetan eta gure bizitzetan egin beharreko aldaketaren motortzat pertsona hartuta.
- **Nazioartekotzean Aditu Ikastaroa:** Unibertsitate titulazioa duten 30 urtetik beherako Euskal Herriko gazteei zuzendutako formazioa, nazioarteko entitate eta enpresetan prestatzeko aukera emango diena.
- **Lanaren etorkizunerako Pertsona, Kultura eta Talentuan Aditu Ikastaroa:** Giza Baliabideen eta Pertsonen Kudeaketaren arloko profesionaleri garapenean eta ikaskuntzan laguntzera bideratutako programa.
- **Enpresa Kooperatiboaren Kudeaketako Espezializazio Ikastaroa:** Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak Konfekooperekin lankidetzan ematen duen Enpresa Kooperatiboaren Kudeaketako Espezializazio Ikastaroaren XIV. edizioa. Ikastaroaren helburua da parte hartzaileak enpresa kooperatiboaren kudeaketa bikainerako kontzeptu, teknika eta tresnen garapenean trebatzea.



210
PARTE-HARTZE
BERRI



EKINTZAIETZA - MONDRAGON TEAM ACADEMY





Ekintzailtza – Mondragon Team Academyren koordinazioan:

- **Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduan (LEINN)**, azpimarratzekoa da 324 ekintzailek hasi dutela gradua MTAREN 9 laborategietan: Oñati, Irun, Bilbo, Madril, Bartzelona, Valentzia, Malaga, Puebla-Mexiko, LEINN International eta Seul-Korea.
- 21-22 ikasturtean, **Falkon Model izeneko LEINN Graduaren esparru pedagogiko** berria ezarzen jarraitu dugu, bigarren urtez, Mondragon Team Academy sareko laborategi guztietan.
- **LEINNen Learning Journeys** jardunaldiak pandemiaren baldintzapean egin ditugu. Hala ere, planifikatutakoaren arabera aritu gara, eta guztiak hasi eta bukatu ahal izan ditugu.
- **LEINNen digitalizazio**rako hainbat **proba** pilotu egin dira.

MTA Ekintzailtzako Etengabeko Prestakuntzaren eta Graduondoaren arloan, honako programa hauek gauzatu dira:

- **TEAMINN Team Mastery:** bi edizio egin dira, Europakoa eta Koreakoa, hurrenez hurren.
- **PLATFORM COOPS Now** ikastaroaren hirugarren eta laugarren edizioak, NEWSCHOOL Universityrekin (New York) lankidetzan.
- **Barne ekintzailtza eta berrikuntza programa (T-Program)**, ITA Aragoiko Institutu Teknologikoarekin lankidetzan.

Mondragon Team Academy – MTA nazioarteko sareari dagokionez:

- **Malagako** Udalarekin hitzarmena sinatu dugu, Berrikuntza eta Ekintzailtza Laborategi berri bat abian jartzeko, 2022-23 ikasturtean LEINN Gradua eman ahal izateko.
- Ekonomia zirkularreko gaietan **Bartzelonako** Udalarekin ekosistema ekintzaileko proiektu bat garatzeko aukera.

Ekintzailtza eta berrikuntzako inkubazio eta ekosistemei dagokienez:

- **Nazioarteko** erreferentziako **ekitaldi, hitzaldi eta biltzarretan** parte hartu dugu:
 - Kooperatibismoaren Munduko Kongresua, Seulen
 - Platform Coops-en Urteko Konferentzia, Berlinen
 - EXPO Dubai, ACNEk gonbidatuta
 - The Wellbeing Summit for Social Change, Bilbon
- MONDRAGONekin akordioa, **South Summit**ean ecosystem partner gisa elkarrekin parte hartzeko.
- **BBF Fintech:** Hack&Disrupt ekimenaren bigarren edizioa, BMEren laguntzarekin, Bilboko Bursaren eraikinean.



IKERKETA ETA EZAGUERAREN TRANSFERENTZIA



2021/22ko ekitaldia hizpide hartuta, bereziki esanguratsua iruditzen zaigu transferentziako sarreren gehikuntza, enpresei eskaintzen diegun balioa sendotzeko daukagun gaitasunaren erakusgarri. Ikerketa proiektuei dagokienez, 2021-22 trantsizio urtea izan da (EU proiektu berrien itxiera eta abiaraztea), diru sarrera eta proiektuetan aurreikusitakoa baino itxiera txikiagoarekin, baina hurrengo urteetarako oinarriak finkatuz, finantzaketa iturrien dibertsifikazio handiagoarekin; adibidez: MONDRAGON (ZTP, KHSF), GFA, EJ-SPRI (HAZITEK, ELKARTEK, BIKAINTEK, Ekonomia Soziala), MINCOTUR, EUROPA... Hori dela eta, gure finantzaketa mixta desorekatuta dago transferentziarantz, eta horregatik ari gara ahalegina egiten Europako partzuergo berrietan posizionatzeko, ezagutza sortzeko dugun gaitasuna hobetu dezagun. Gure inguruak (EJ-SPRI) oraindik ere teknologien garapenaren ikerketari eta berrikuntzari ematen dio erabateko lehentasuna. Hori dela eta, ahalegin berezia ari gara egiten Eusko Jaurlaritzaren programa teknologiko berrietan sartzeko; besteak beste, partzuergoak/proposamenak merkatuen garapenaren, aliantza adimendunen, negozio eredu berrien, pertsonen kudeaketa estrategikoaren eta bestelako bidez osatuz. Norabide horretako emaitzak nahiko positiboak dira, eta areagotzen ere hasi dira.

2021-22ko ekitaldian gure erakundearen berezko gaiak sendotzen jarraitu dugu, baita espezializazio taldeen arteko proiektu hibridoak sortzen ere, gure inguruko enpresei eragiten dieten bi trantsizio nagusien berezko erronkei erantzun osotuagoa emateko, hau da, trantsizio digitalari eta trantsizio jasangarri-berdeari.

Trantsizio digitalari dagokionez, honako hauei lotutako negozio aplikazio hibridoaren katalogo garrantzitsu bat osatu dugu:

1. Enpresen estrategia digitala eta profil profesionalen re-skillinga garatzea eta talentu digitala erakartzea.
2. Negozio eta talentu prozesuetan datuaren erabilera analitikoko kasuak garatzea.
3. Ekipamendu aldaketa ikasteko eta kudeatzeko testuingurua garatzea, digitalizazio prozesuen ezarpena errazteko.
4. Digitalizazioa ustiatzea, negozio prozesu jasangarriak optimizatzeko.
5. Bezero/erabilera datu digitalak zerbitzu berrien bidez monetizatzea.

Trantsizio berdeari dagokionez, honako hauei lotutako negozio aplikazioen katalogo garrantzitsu bat egin dugu:

1. Euskadiko lurraldeen zirkulartasuna hobetzea, eskualdeko ingurumen estrategia indartuz, hau da, funtsezko hondakinak (plastikoak, gailu elektriko eta elektronikoaren hondakinak...) identifikatzeko, berreskuratzeko, hautatzeko eta balioztatze baliokate berriak ezartzea, trazabilitate digitaleko plataformaren bidez.
2. Tokiko enpresa sareko eragileen arteko aliantza adimendun zirkularrak bultzatzea, hau da, Industria Parkeetatik Ekoparkeetarako eraldaketa egitea, Industria Sinbiosiaren bidez.
3. Negozio eredu zirkularrak dibertsifikatzea eta garatzea, hau da, industria negozioak dibertsifikatzea ekonomia zirkularraren negozio eredu berrien bidez, industria eredu linealetatik ASG irizpide eta araudiak betetzen dituzten industria eredu zirkularretara igarota. Baita negozio eredu zirkular eta jasangarrien ezarpena errazten dutenak ere, enpresak ekonomia zirkularrean trebatuz, prestakuntza material gamifikatuak dituzten online plataformen bidez, jasangarritasunaren ikuspegitik, euskarri digitaletik eta eraldaketa horien bideragarritasun ekonomikoaren analititik.

Transferentziaren zein Ikerketaren kasuan, laguntzaile eta preskriptoreen mapa indartu dugu 2022-23ko ekitaldira eta hurrengo urteetara begira.



Era berean, bikaintasunaren garapenari (esaterako, tesi berriak eta inpaktua izango duten argitalpenak) eta I+T prozesu operatiboen kudeaketa eraginkorragoari (adibidez, proiektuen zaintza/asmakuntza/garapena - proiektuak kudeatzea - emaitzak zabaltzea) lotutako datozen urteetako erronkei ere egin beharko die aurre unitateak. Horretarako, 2021-22ko ekitaldian, Plan Zientifiko berri baten inplementazioa eta UNE 166.002 Prozesuak Garatzeko Planaren inplementazio operatiboa abiatu ditugu, taldekako ibilbide orriekin eta proiektu/aukeren jarraipena egiteko panelekin, karga konprometituak eta karga eskuragarriak hobeto bistaratzeko, lagungarria baita ekintza komertzialak bizkortzeko edo moteltzeko beharra ikusteko edo talentu berria erakartzeko. Barne prozesuak finkatzeak eraginkorragoak izatea ahalbidetuko digu, eta, besteak beste, denbora irabaztea taldeen arteko esperientzia/praktika onen trukea hobetzeko eta proiektuen inpaktu zientifikoa handitzeko.



I+B PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

PROIEKTUAK

